

‘Mihia Pitz’ telebista saioa, zuberotar gazteak euskarara hurbil daitezen

LAURENT BÉGUERi Azia elkarteko presidentea da. Haren esanetan, Zuberoako gazteek euskara ulertzen dute eta etxean erabiltzen dute, baina kanpoan gutxi hitz egiten dute.

Ahalegin horretan elkar hartu dute Azia elkarteak eta Aldudarrak Bideo kooperatibak. Euskararen erabilera bultzatzeko *Mihia Pitz* telebista saioa abiarazi dute. Joan

den ostiralean (irailak 20) ziren lehenengo atala grabatzekoak. Talde arteko jokoak ditu oinarri saioak eta estreinaldian Urdiñarbe-ko, Barkoxeko, Gamere-Zihigako eta Hokiko (Sohutako auzoa) gazte talde bana bildu zen Urdiñarben. Lau jokotan hartu zuten parte: dantza, mimoa, hitz jolasa eta Zuberoako kantuekin karaokea. Ikusleek berebiziko

garrantzia dute saio berri horretan, haien txalo zaparraden arabera aukeratuko baitira talde txapel-dunak. Euskara ulertzen ez duten ikusleentzat itzulpen zerbitzua egongo da eta aurkezlearen eta lehiakideen hitzak ulertu ahal izango dituzte.

Saioak Kanalduden, Azia elkartearen webgunean eta TVPIIn emituko dituzte.

Bahea

Xabier Lasak Berrian esanak:

“Poz txikia eragin digu inoiz baino euskara gehiago (ez aski) erabili izanak alderdi guztiek osteguneko eztabaidan. Eta poza, Urkullu lehendakariak euskarazko hedabide bati —Elri— eskaini izanak lehen elkarriketa politika orokorreko eztabaidaren ostean. Datu horiek normaltasunez hartu beharko lirateke herri normalizatu batean, baina ez da gure kasua. Ez hori bakarrik, Maite Artola esatariak estu hartu izanari esker, Urkulluk erabakitzeke eskubideari buruz legebiltzarrean esan gabekoak jaurti zituen irratian; deigarriak egin dira batzuentzat, eta, ondorioz, erdal medioek euskaraz esanak jaso behar izan dituzte ostiralaz geroztik. Sinbolikotik haratago doazen jarrera publikoak dira horiek, erabilpenari buruzkoak. Horiekin azpimarra egitea politikariei presio edo markajea egiteko modua izan daiteke”.



DANI BLANCO

Iñigo Urkullu, EAEko lehendakaria.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Berezko pentsio sistema defenda dezagun

PENTSIONISTEN ZATI HANDI BAT erabat kezkatutik dago pentsioen etorkizunarengatik. Gauza bera gertatzen zaie lanean dabiltzanei, baita lanik eta etorkizunik gabeko gazteen gudarostea osatzen duten lagunei ere. Errua sistema kapitalistak dauka, urtero pentsioen murrizketa larriagoa inposatzen baitie ohiko politikari eta gobernuai, aseguru etxeek, finantza enpresek eta bankuek etekin handiagoa izan dezaten.

Azkeneko egunetan eztabaida puri-purian dabil, Espainiako eta Frantziako gobernuak erreforma erradikalen alde egin baitute, eta pentsionistei eskubideak eta erosteko ahalmena murriztuko dizkiete. Espainiako Gobernuak bederatzi urtetan 33.000 milioi euro murriztu nahi du pentsioen gastua. Hala, pentsionistei erosteko ahalmena gutxituko zaie urtetik urtera. Kalkulu batzuen arabera batz besteko pentsioak —981 euro hilean—, urtean 1.500 euro galduko ditu datozen sei urteetan.

Euskal herritarrek bi estaturen inposizioa jasaten dute, euren subiranotasuna mugatzen baitute. Bertako pentsioak Madrilen eta Parisen erabakitzen dira, eta Euskal Herriak ezin du bere dirua kudeatu eta administratu herritarren ongizatea bermatua izan dadin. Berezko pentsioen sistema aldarrikatu behar dugu, baita lan harremanetarako berezko markoa ere. Euren burua subiranistatzat dutenek balore horiek praktikatu beharko lituzkete, juridikoki subiranoak ez izan arren. Berezko pentsioen sistema kudeatzen ez dugun bitartean, autonomi, foru eta udal boterean dauden horiek subiranismo hori ezarri beharko lukete, pentsio baxuenak osatzeko irtenbide onenak bilatuz. Subiranismoa ekitzen bidez gauzatzen baita. Eta Madrildik nahiz Paristik mugak jartzen dizkiguten arren, badago tarterik horretarako.

Juan Mari Arregi

